

BESTE HERRI BATEKIN AMESTEN DUGU

Utopiez ari gara azkenaldian. Euskal Herria non egongo ote da berrogeita hamar urte barru? Eta mundua? Eta eskuin muturra nahiz faxismoa? Eta erregimen zisheterosexuala? Feminismoa non egongo ote da? Zein izango da gure lubakia? Utziko ote diogu herri kolonizatzaile izateari? Eta zapaldu izateari? Gorputz normalak izango du definizioen bat? Lan banaketa sexuala existituko da? Eta familiarekin zer gertatuko da?

Galdera horien erantzunetan pentsatzen hasiak gara, baina ez edozein aukeratan, guk nahi ditugunetan baizik. Eta horien egikaritzeko urratsetan.

Euskal Herrian gertatzen denari eta munduan gertatzen denari erreparatzea ezinbesteko dugu, eta iaztik ez da askorik aldatu egoera. Eskuin muturra eta faxismoa gorantz, jarrera erreakzionarioak eskuin eta ezker, eta munduan zehar hainbat gerra eta genozidio, horren adibide Palestina. Horren guztiaren aurrean, ez dago antolatu eta borrokarako estrategietan pentsatzea besterik.

Bizi dugun testuinguruari aurre egiteko identitate eta kategorien estrategikotasunean berresten gara aurten ere. Gure kategoriak identitarismo postmoderno hutsa direla diote batzuek, baina guk bollerak, transak, ez bitarrak, marikak, trabestiak eta bestelako askotariko kategoria izatearekin erantzungo diegu. Emakume eta gizon kategoriak ulertzen baititugu sistema zishetropatriarkal kapitalista arrazista eta kolonialistak betikotzeko tresna gisa, erregimen heterosexualaren sostengu, alegia.

Gorputz batzuek beste batzuekiko dituzten produkzio- eta menpeko- harremanen ondorioz, aipaturiko sistemak gure gorputzetan indarkeria aplikatzeko sortuak dituen egiturak erreproduzitzen jarraitzen du. Testuinguru eta alor konkretuen arabera, hamaika forma hartuz.

Instituzio eta diskurtso politikoetatik arautu nahi dituzte gure bitzitzak, eskubide eta errespetuan oinarritutako elkarbizitza faltsuak lortu direla salduz. Eta horrek, biolentzia batzuk jaisten ditu, ados. Baina beste batzuk ezkutatu egiten ditu, eta hala, errorik ez da aldatzen apenas. Are gehiago, marko neoliberal eta indibidualista sustatzen dute. Askebiziaskeimaite, nahiduzunaizan eta bizitzakoloretakooda. Eta hori, sinestarazi nahi diguten gezur bat da.

Askatasunaren marko neoliberalak gaingaitu behar dugu, eta berau problematizatu. Ezinbestekoa izango da borroka honetan norbanako bakoitzak ditugun ardurak azaleratzea eta hartzea. Garenaz eta egin dezakegunaz kontziente izan, eta lekuz mugitzeko prest egon. Okupatzen ditugun lekuak ez baitira ausazkoak. Borroka eta leku aldatze horiek plazerez egin nahi ditugu eta desiragarri egin nahi ditugu. Lubakia desiragarri, utopia desiragarri, prozesuak desiragarri eta gizon eta emakumerik gabeko mundu bat desiragarri.

Beste egiten gaituzte, baina beste izan nahi dugu. Araua ez den beste, norma ez den beste, espero denaren beste, gizon eta emakumea ez den beste. Gorputz zapalduarik gabeko herri batekin amesten dugu, dena aldatzeko. Eta gu dena aldatzeko ari gara. Begirada luzatuz, eraldatuz, imajinatuz. Horregatik diogu; beste herri batekin amesten dugu!

Gora borroka transmaribibolloa!
Gora borroka transfeminista!